



EBAZPENA Unibertsitate Politikako sailburuordearena; honen bidez, 2025-2026 ikasturterako unibertsitateko Ikasiker lankidetza beka eskaeren ebazpena ematen du (B modalitatea).

Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuak, 2025eko abuztuaren 28ko aginduaren bitartez (2025eko irailaren 5eko EHAA), unibertsitateko ikasleentzako Ikasiker lankidetza beken deialdia egiten zuen 2025-2026 ikasturterako. Agindu horrek, onartutako oinarrien 2.1 artikuluan bekaren B modalitatea jasotzen du: udan zehar egin beharreko lankidetza (2026ko ekainaren 1etik irailaren 30era bitartean).

Agindu horren 15.2 artikulua ezartzen duenez, A eta B modalitateen ebazpenak lau zerrenda izango ditu: eskabide esleipendunak, ez-esleipendunak, beka eskuratzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten arren, beka lortzeko ordena-zenbakia lortu ez duten eskabideen zerrenda (erreserbak) eta eskaeren zerrenda, lankidetza-proiektua egiteko eskatzaileak hautatutako ikertaldean edo ikerketa-zentroen arabera ordenatuta.

Hautaketa-batzordeak, 2026ko urtarrilaren 8an, Ikasiker lankidetza bekaren B modalitatean aurkeztutako eskaeren behin betiko ebazpen proposamena aurkeztu dio Unibertsitate Politikako sailburuordeari.

Horregatik, aipatutako aginduan ezarritako gainerako prozedura-arauak beteta,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Deialdiaren aginduak ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileei eta beka lortzeko behar den ordena zenbakia dutenei beka ematea, zenbatekoa: 30.000 euro, B modalitatean (I. Eranskina).

Bigarrena.- Deialdiaren aginduak ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten eskatzaileei beka ukatzea, B modalitatean (II. Eranskina).

Hirugarrena.- Deialdi honetako beka eskuratzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten arren, beka lortzeko ordena-zenbakia lortu ez duten eskabideen zerrenda argitaratzea, B modalitatean, (III. Eranskina). Zerrenda horrekin erreserben zerrenda bat eratuko da; zerrenda hori baliatuko da uko-egiteren batengatik bekaren bat libre geratzen bada beka hori emateko.

Laugarrena.- Ikertaldean edo ikerketa-zentroen arabera ordenatutako zerrenda, eskaera adjudikaziodunak, ukatuak eta erreserbak jasotzen dituen argitaratzea (IV. Eranskina).





Bostgarrena.- Ebazpen honen kontra, gorako errekurtsua jarri ahal izango du interesatuak, Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza sailburuari zuzenduta eta hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren datan.

Xabier Aizpurua Telleria

Unibertsitate Politikako sailburuordea